

**2014KO OTSAILAREN 12AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hamabia

HILABETEA: Otsaila.

URTEA: Bi mila eta hamalaua.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko zortziak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

Garbiñe Zurutuza Fernández

ETORRI GABEA: M^a Mar Celaya González

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2014ko otsailaren 10eko aktaren onespena.

2014ko otsailaren 10eko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute.

2.-ZERBITZUAK ESLEITZEA

Beasaingo bide publiko jakin batzuetan ibilgailuak aparkatzea kontrolatzeko, mugatzeko eta antolatzeke zerbitzua esleitzea.

Kontratazio Mahaiaren ondorengo erabaki-proposamenaren berri eman da:

“AURREKARIAK

1.- 2013ko azaroaren 25ean, Gobernu Batzordeak erabaki zuen prozedura irekiaren bitartez, Beasaingo bide publiko jakin batzuetan ibilgailuak aparkatzea kontrolatzeko, mugatzeko eta antolatzeke zerbitzua kontratatzea. Horretarako baldintza tekniko eta administratiboen plegua onartu zen. Litzitazio prezioa 165.290 €tan BEZ kanpo finkatuz eta egikaritze epea 4 urte beste 2 urte luzatzeko aukerarekin.

2.- Deialdia, 2013ko azaroaren 29an argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko 15 eguneko epean). Lizitazioa 2 enpresa aurkeztu ziren, hain zuzen ere, Sociedad de Gestiones y Servicios eta Estacionamientos y Servicios.

3.- Dokumentazio administratiboa kalifikatu ondoren, biek baldintza pleguan aurreikusitako dokumentuak aurkeztu zituzten. Beraz, biak onartuak izan ziren lizitazioan parte hartzeko.

4.- 2014ko urtarrilaren 7an ekintza publikoan, proposamen teknikoari nahiz automatikoki baloratzen ez diren esleipen-irizpideei buruzko kartazala ireki zen, hain zuzen ere, Pleguaren 4. klausulan ezarritakoak, hau da:

- Kudeaketa proiektua: 24 puntu gehienez
- Antolaketa-kudeaketaren proiektua: 10 puntu gehienez
- Hobekuntzak: 10 puntu gehienez

5.- : Baldintza plegu administratiboaren hirugarren klausulak dioen bezala, LEBER enpresak jarraian eranstean den txostena igorri du. Txosten hau kontratazio mahaiak ontzat eman du, udalerriko pertsonak kontratatzeari buruzko proposamena izan ezik. Proposamen hau ez da onartu izaera baztertzaila izan dezakeelako.

Honen ondorioz, lizitatzailleek lortutako puntuazioa, automatikoki lortzen ez diren irizpideekiko ondorengoa da:

Enpresa lizitatzaila	Kudeaketa-proiektua	Antolamendua kudeatzeko proiektua	Hobekuntzak	Guztira
GERTEK S.A. Kudeaketa eta Zerbitzuen Enpresa	19,0	7,0	8,0	34,0
EYSA Estacionamientos y Servicios, S.A.U.	17,7	9,0	0	26,7

6.- 2014ko otsailaren 10ean, 8,15etan buruzko C kartazala (proposamen ekonomikoa eta automatikoki baloratu daitezkeen irizpideak) ireki zen eta emaitza ondorengo izan da:

Lizitazio prezioa: urteko 165.290 + BEZ

Eskaintzaile empresa – Empresa licitadora	Baldintza ekonomikoak – Condiciones económicas	“Bai Euskarari edo Bikain” Ziurtagiria
GERTEK Empresa de Gestión y Servicios S.A.	116.738,68 + 21% BEZ	bai
EYSA Estacionamientos y Servicios, S.A.U.	161.323,04 + 21% BEZ	bai

7.- Horren ondorioz, lizitzaileek lortutako puntuazioa ondorengo da:

Eskaintzaile empresa – Empresa licitadora	Kudeaketa proiektua – Proyecto de Gestión	Antolaketa- kudeaketaren proiektua – Proyecto de Gestión organizativa	Hobekuntzak - Mejoras	Baldintza ekonomikoak – Condiciones económicas	“ Bai Euskarari edo Bikain “ ziurtagiria	GUZTIRA – TOTAL
GERTEC EMPRESA DE GESTIÓN Y SERVICIOS S.A.	19,0	7,0	8,0	51	5,0	90
EYSA ESTACIONAMIENTOS Y SERVICIOS, S.A.U.	17,7	9,0	0	36,91	5,0	68,61

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabai-proposamena egiten dio:

Lehenik. Beasaingo bide publiko jakin batzuetan ibilgailuak aparkatzea kontrolatzeko, mugatzeko eta antolatzeke zerbitzuaren kontratazioa GERTEK

EMPRESA DE GESTIÓN Y SERVICIOS S.A enpresari esleitzea, baldintza pleguaren eta enpresak aurkeztutako eskaintzaren arabera.

Hamar laneguneko epean idatzi hau jasotzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, aipatutako enpresak ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- Jarduera ekonomiko gaineko zergan alta emanda egotearen agiria.
- Gizarte Segurantzaren enpresa inskribtuta egotearen agiria.
- Zerbitzuari atxikitako langileei Gizarte Segurantzaren alta emanda egotearen agiria.
- 23.347,74 €ko behin betiko fidantza eratzeari buruzko agiria.
- Erantzukizun zibileko aseguruaren agiria, gutxienez 150.000,00 €ko kopurua duena.

Bigarren. Esleipena prezio honetan egiten da: 116.738,68 € + BEZ urteko.

Hirugarren. Egikaritze epea lau urtealdikoa da eta beste bi urtez luzatzeko aukera egongo da.

Laugarren. Aipatutako dokumentazioa aurkeztu eta gero, behin betiko esleipena egingo da eta horretarako Alkate jaunari baimena ematen zaio. Jarraian, kontratu administratiboa sinatuko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Aitor Aldasorok egindako galderei erantzunez adierazten da, esleitzea proposatzen den enpresak 12 parquimetro (ez da beharrezkoa ticketa kotxean jartzea, matrikula jarri behar delako hori lortzeko) eta 2 pertsona kontrolatzeko aurreikusten dituela. Beste enpresak, aldiz, 17 parquimetro jartzea proposatzen ditu eta 4 pertsona kontrolatzeko, baina hau gehiegizkoa dirudenez puntu gutxiago eman zaio.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

3.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera zortziak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.

